

Balorezko Proposamena

Azalpena:

Gaur egun, ukalezina da bideo-jokoen eremua esponentzialki hazten hari dela, batez ere gazteriaren artean. Egoera honen aurrean, irabazi ekonomikoak izango dituen enpresa bat egiteko aukera ikusi dugu, "Canvas" metodoa erabiliz. Enpresak bideo-joko lehiaketetan parte hartzeko talde bat sortzean izango luke oinarria, beste merkatuetara irekitzeko aukerarekin.

Enpresak berezitasuna taldea egiteko moduan izango luke, non edozeinek guk antolatutako lehiaketa batean parte hartzeko aukera izango lukeen, lehiaketa honetako hoberenak geure taldean sartuko lirateke, ondoren lehiaketa garrantzitsuetan parte hartzeko talde moduan.

Balorezko proposamena:

Gure enpresaren balorezko proposamen garrantzitsuena kiroltasuna da. Gehien bat gure enpresa bideo jokoetan oinarrituta dagoelako eta beraz helburu printzipal bezala hori hartu genezake. Enpresaren prezio aldetik guk behintzat esan genezake gure prezioa ezingo litzatekeela definitu gehien bat guk hornitzaileen menpe gaudelako eta beraz haiek jartzen digute guri zein prezio jarri beharko litzatekeen. Guk soilik hasierako torneoaren prezioa ezarriko genuke eta ondorengo prezioak, lehen esan dugun bezala gure hornitzaileek aukeratzen dituzte.

Marka eta diseinu aldetik esan dezakegu gure enpresari jarri diogun izena EHBT (Euskal Herriko bideo jokoen taldea) izan dela. Izen honetan oinarritu gara iruditzen zaigulako saltzeko estrategikoki ondo dagoela. Gainera gure diseinua ez dator beste edozein iturritik, guk sortutakoa da, beraz horrek esan nahi du adimen handiko enpresariak garela.

Bestalde, kalitatea esan dezakegu garrantzitsua dela, gehien bat hasierako torneoan, bertan kontratatuko ditugu, etorkizun batean gure enpresaren parte izango diren jokalaria. Beraz, hasierako torneoan gauza deigarriak jarriko ditugu ahalik eta jokalaria gehien erakartzeko.

Lan aldetik, hasiera batean langilegoa bost taldekide gara eta bakoitzak lan bat esleituta dauka, aurrerago ikusiko bagenu dena ondo dioala eta gure enpresak arrakasta irabazten hasiko balitzake orduan gauzak planteatuko genituzke, gehien bat langilego kopurua igo beharko litzateke. Azken finean, bost pertsonak soilik ezingo genukeelako enpresa guztia aurrera eraman.

Lehenik eta behin bost langileen lana zehaztuko dizuegu, arrazoi nagusia da ondorengo langileek eremu berdinetan egingo lukete lan eta beraz hasierako bost langileen lana zehaztearekin nahikoa da.

Hasteko, bi langile egongo lirateke finantzaketaren eremu honetan, eta hauen lana bereiziki zehazten da, enpresak zenbat diru lortzen duen hornitzaile bakoitzeko edota zenbateko galera izango lukeen hornitzaile bat gutxiago izanda, ondoren ere ikusiko luke zenbateko kostua izango litzatekeen taldeko jokalaria bakoitza, hau da, bakoitzari zenbateko soldata ordaindu beharko litzaiokeen.

Bestalde ere, enpresa mantentzeak zer kostu edukiko lukeen. Azkenik pentsatu dugu beste bi langileak eremu honetan egongo direla, gehien bat gure enpresarentzat eremu hau nahiko garrantzitsua delako, hauen lanaren oinarria marketina izango litzateke, hau da, hiru langileetako bat hornitzaileak bilatzen egongo litzake, bestalde ere hornitzaile bakoitzaren diru iturriak eta baita ere zer alde on eta txar dituen aztertuko luke. Bitartean beste langile batek , torneoak bilatzen egongo litzake eta baita gure enpresa beste hornitzaileei marketina egiten.

Baita ere sartuko dugu beste langile, non, honen lana izango litzateke baldintzak idaztea, gehien bat torneoetan parte hartzeko baldintzak. Ala nola, zein adin eduki behar den, zein kostu izango duen torneoak, zenbaterainoko adimena duzun joko horretan... langile honen lana oso garrantzitsua da, arrazoi nagusia arauak bete ez gero jokalariek, torneoetan gerta daitezkeen arriskuak murriztuko lirateke.